

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

1431

8/2019 DEKRETUA, martxoaren 13koa, Lehendakariarena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko ordezko kide bat izendatzeko dena.

Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legean ezarritakoaren arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua arautu zuen irailaren 16ko 158/2008 Dekretuak, eta urriaren 21eko 197/2014 Dekretuak aldatu egin zuen aurreko dekretu hori.

Lehendakariaren uztailaren 27ko 22/2017 Dekretuaren bitartez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko kideak izendatu ziren. Horretarako, Arabako Foru Aldundia ordezkatzeko kide titularra izendatzea proposatu zuen aldundi horrek, eta, 2018ko irailaren 25ean, Arantza Cañamares Aguilar andrea proposatu zuen erakunde horren ordezko kide izendatzeko.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren buru gisa, eta Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan ezarritakoa betetzeko –dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatu zituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen–, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Arantza Cañamares Aguilar andrea izendatzea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluako ordezko kide, Arabako Foru Aldundia ordezkatzeko.

AZKEN XEDAPENA

Argitara bedi dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, guztiek ezagutu dezaten.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko martxoaren 13an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.